## ITXAROPENA AGORTZEN

Arazo bat egon eta
ikusi nahi ez denean
hura arindu beharrean
ilunago ikusten da
errudunak asmatu ordez
ez al litzateke hobe
erantzunkizunak hartu
eta teknikak aldatu?

Itsukeriaren bidez
gizartea alienatzen
berez inola ez dagoen
batasun faltsua bilatzen
askatasunik gabeko
herri baten garrasia
ezin da ixilarazi
errepresioari utzi!!.

Ez aurrera ez atzera
legediaren antzera
itxaropena agortzen
eta ezer gutxi lortzen.

Gazteria zapaltzea
ideiak debekatzea
ta horrelako neurriak
alperrikakoak dira
behingoz jabetu zaitezte
benetako egoeraz
berezko kultura duen
herri baten itomena.

Arazoak bertan dirau
eta bitartean
txoriak ezin du aske
hegal egin.

## LOTSARIK GABE

Josebak Garazi maite du eta
Garazik Joseba,
dena polita gizarte honentzat
Aritzek Eneko maite du ordea,
zergatik ez zaie kalean errespetatzen?

Ez al du maitasunak gutxienez merezi
inongo mugarikan ez jartzea?
Maitatu, inongo lotsarik sentitu gabe
behingoz lortzeko begirunea.

Itsasok Iñaki maite du eta
Iñakik Itsaso
dena polita gizarte honentzat
Oihanek Aitziber maite du ordea,
zergatik ez zaie kelean errepetatzen?

Ez al du maitasunak gutxienez merezi
inongo mugarikan ez jartzea?
Maitatu inongo lotsarik sentitu gabe
behingoz lortzeko begirunea.

Eta amorrua berriz
jabetzen da nitaz
baina muga guztiak
apurtzera goaz.

Ez al du maitasunak gutxienez merezi
inongo mugarikan ez jartzea?
Maitatu, inongo lotsarik sentitu gabe
behingoz lortzeko begirunea,
lotsarik gabe
lotsarik gabe
begirunea
lotsarik gabe.

## ARDIFIZIALA

Lau medikuren artean
laboretegi batean
bizitza sortu nahiean
aspaldi dakigu
jaiotzaren sekretua
zientziaren laguntzarik
gabe sortua.

Gizakia izango ote da
Dolly-(re)n hurrena,
giza eboluzioaren azkena?
Gelditzen saia gaitezen, erokeria hau,
gure moralak bizirik baitirau.

Hi, alu puta seme hori!
Nortasun ezberdinen borrero,
saia hadi zeozer topatzen,
ta sortutakoa deusezten!

Etikari buruz bi hitz:
ez manipulaziorik
ezta gizaki kopiarik
gezurra dirudi;
guzti hau egin ondoren
ez genuke lorik egingo,
guk bederen.

Gizarte honen jainkoa
zientzia ari da bihurtzen
eta gauza naturarak
ahazten, suntsitzen, ta hiltzen.

## "HAURTZAROA LAPURTU ZIDATEN"

Bakardadean
haurtzarorik ezean
kale gorrian
hotzak, noraezean
hamalau urte
beretzat hainbat mende
irrifarre bat
zer ote jakin gabe.

Ez da erreza
ezertan sinistea

etxean beti
gorrotoa jatean
ta gurasoak
egoeraren errudun
bururik gabe
baina berriro haurdun.

"Biluzik jarrita argazkiak ateratzen
nahi ez nuena egiten
igurtzi lizunak jasotzen
mehatxuka: kaletikan ez esan ezer!".

Eta prestatzen joan gaitezen
protestarako antolatzen
eta zigorra exigitzen
justizia
(baldin badago noski).

"Nire gorputza beti kameraz grabatzen
beste umeekin nahasten
euren biktima erreza nintzen
geroztik ez dut berriro lorik egiten."

## TORTURA NONNAHI

Komunikabideetan
dena estaltzen saiatu arren
jadanik alfonbrapean
hauts gehiegi ezkutatu dute
gudariak jipoitzea
ondo ordaindua dagoen sisteman
edonon agertzen zaigu tortura.

Hau ezustea!
Egia ez da albisteetan
ikusten duzuna.
Bertsio ofizialak
torturatzaileek emanak dira
Ez sinetsi, ez irentsi!
Garuna baduzu, ez ala bai?
Fisikoa edo morala
gaur dugu tortura nonnahi.

Gorputzak gorpu bihurtu arte
indarkeria erabiliz
presoak hartu, ihaurri,
eta ihauliak itzuli.
Zezen-plazan zezena hiltzea
baldin bada kultura
argi dago: Espainiarrena da tortura.

Hau ezustea!...

Tortura kartzelan
Tortura emakumeengan
Tortura sexista
Tortura arrazista.

OHARRA: Espainarrena tortura dela
esaten dugunean, denok dakigu nori
buruz ari garen.



## ZAURI IREKIETAKO HERRIA

Metafora bidez
idatzi nahiko nuke
zauri irekietako
herri honen oinazea,
baina hortarako
poeta jaio behar
eta gutxi omen dira
lumadun ederzaleak.

Astero bezala
buzoian bilatzen du
Espainian preso daukaten
semearen eskutitza
baina horren ordez
dei hotz bat jasotzen du
soka lepoan duela
semearenak egin du.

…eta esango dute
betikoak garela,
eta omenaldian
jende gutxi geundela
ta bertan egotea
apologia dela,
kameraz fitxatu gaituzte.

…eta esango dute
betikoak garela
eta demokrazian
gu soberan gaudela
ustezko heriotza
naturala izan dela
eta dena "ongi" dihoa.

Zein zaila den barkatzea
herri batek sufritzean,
Arrano Beltza sekula baino
beltzagoa dago orain.

Zein zaila den ahaztea
herri batek sufritzean,
Arrano Beltza sekula baino
beltzagoa dago orain.

## HEZKUNTZA USTELA

*Gaua sartzen ari da
eta gaur ere,
zalantza haziak ereiten ari naiz
zalantzondoak biltzeko.

*Guztia dakigula uste dugu ta
kaleko loreak, bere latinezko izena
ikasi ezinik dabiltza.

"Zalantza" herrian, "Uste dut" jauna,
historian idatzi den zientzia libururik
zehatzena
irakurri, eta harritu (egin) da,
guztiz harritu da:
1997 orrialde txuri ditu eta,
beste guztiak
ezagutzen ez dugun hizkuntza
arrotz batetan idatzita daude.

Esan dudanaren arrazoia:
hezkuntza sistemaren erdoila,
bizitza zientzia bakarrik dela
irakasten duen eskola ustela.
Ez dakizue ezer!

Sentimendurik gabeko hezkuntza,
gure kulturaren zapalkuntza.
Hori dela eta egunero
zuen hitzak aditu eta gero
sistema gorroto dut.

* Oharra: Joseba Sarrionandia-ren
"Sasoi makalak" poeman oinarritua.

## NORTASUNA ERAIKITZEN

Urte batzu badira jaio nintzenetik
lehenengo jaunartzea egin nuenetik
eskola atzean utzi nuen aspalditik
ikasbidaia, lagunak, inozentzia eta…

Nire gorputzan aldaketak eman ziren
institutoan lagun berriak egiten






maitasuna ezagutu ta gauero irten
gutxi gora behera ia denok egin dugu-
na…

Bizitzan baloreak
aukeratu behar ditut,
ideiak garatzean
pertsona bezala hobetu.

Zure mundutik ateratzea ona da
kontura zaitezen ez zarela bakarra
zure inguruneko gizarte pluralan
koherentzia gordetzen saiatu behar
zarela.

Zure erabakiak hartzeko adorea,
ta beharrezko heldutasuna lortzean
mundu guztiarekin ongi gelditzea
ezinezkoa dela konturatuko zara,
zeren…

Bizitzan baloreak
aukeratu behar ditut,
ideiak garatzean
pertsona bezala hobetu.

Ireki behingoz begiak
garuna erabili
nortasuna eraikitzean
aukeratu ta bizi.

## ADIERAZI BEHARRA

Gezur ofizialaren
aurrean sentitzen
dudan amorrua.
Zapalkuntza estaltzen
dutenenganako
gorroto bizia.

Sentitzen dudana
adierazi beharra.

Jaio nintzen herriak
bihotzean sortzen
dit harrotasuna
preso baten amari
nik zor diodana
da begirunea.

Sentizen dudana
adierazi beharra.

Horregatik kanta bihurtzen da
barrua kanporatuz
sentimenen komunikabide
hitzen adierazbide
adi ta entzun.

Sentitzen dudana
adierazi beharra

bizitzen dudana
adierazi beharra.

## 500 URTE TA GERO

Mendez-mende zen prestatua
eta zehazki pentsatua
Mundu berri bat aurkitzean
herri lurrak suntsitzea
bertako kultura deuseztea.

Aberastasunak hartuta
ta hizkuntza inposatuta
Arrazakeriaren bidez
esklabutza lana ordez
bete gaituzte dena gezurrez,
saminez.

ETA AMERIKAZ ARI GARELA
EUSKAL HERRIAN BERDINA
DELA
500 URTETAN BEHIN TA BERRIZ
EGINA
HERRI HAUETAN EREINEZ MINA

Errugabeak diren arren
arrazoia ukatu egin zaie
Indarkeria behin ta berriz
jipoi guztiak estaliz

meatxuak erabiliz.

Sarraski osoa ospatuz
irabazitakoak zenbatuz
Herri baten egoeraren
jabe direla uste arren
erakutsiko dugu zer garen,
nor garen.

ETA AMERIKAZ ARI GARELA
EUSKAL HERRIAN BERDINA
DELA
500 URTETAN BEHIN TA BERRIZ
EGINA
HERRI HAUETAN EREINEZ MINA

Desde que los indios vieron que con
tanta humildad,
ofertas y sufrimiento no podían ablandar
corazones tan inhumanos y crueles,
tan sin apariencia ni color de razón,
decidieron convocarse y juntarse todos
y morir en la guerra.
(Fray Bartolomé De Las Casas, 1556)

**BERRI TXARRAK** gara:
**Aitor Goikoetxea**
(bateria)
**Mikel López , "Rubio"**
(baxua)
**Aitor Oreja**
(kitarra)
**Gorka Urbizu**
(ahotsa, kitarra eta pianoa)
(12. kantan, ahotsa: **Jesus Bidegain.**)
Kanta guztiak: **BERRI TXARRRAK**

Diska hau **Marino**ri eskeini nahi diogu, eta bestetik, herri honen askatasunaren alde lan eta borroka egiten duzuen guztioi.

Diska hau, 1997ko Abuztuak 18 eta Irailak 9 artean grabatu zen, "Esparza de Galar"eko "Sonido XXI" estudietan.

Azala eta barnekoaren diseinua
**Manolo Gil**ek egin du.
Frantzesez itzulpena: **Cloti**

**Kontratazioa: 908 773720 (Iñigo)**

**BERRI TXARRAK**
Aralar kalea, 50-1ºD
31870 LEKUNBERRI
(Nafarroa)
**IDATZI !!!**



